

Prentsa-oharra

Energia termikoa metatzeko material berriak

- ▶▶ *CIC energiGUNE eta IK4-TEKNIKER elkarlanean dabilta energia termikoa modu eraginkorrako, egonkorrago eta merkeagoan metatzeko material berriak garatuko dituen patente bat sortzen*
- ▶▶ *Material berriak CSP eguzki-zentraletan eta temperatura handiko prozesuak garatzen dituzten bestelako industria-jardueretan erabili ahalko dira*

(Eibar, 2019ko azaroak 22).- Energia termikoa modu eraginkor, egonkor eta merkean metatzeko premiaren aurrean, [CIC energiGUNE](#) energia-metaketaren arloko ikerketa-zentroa eta [IK4-TEKNIKER](#) zentro teknologikoa elkarlanean dabilta patente bat sortzen, **energia termikoa metatzeko material berrien garapenari** buruzko doktoretza-tesi partekatu baten esparruan.

Zehazki, eta unean-unekeo premien arabera, RedOx erreakzioen bidez beroa energia modura metatzen edo askatzen duten kobaltozko eta nikelzko oxido mistoak garatzea ahalbidetzen duen patente batekin amaitu da bi euskal zentroyen artean egindako ikerketa.

Aurretik egindako ikerlan batzuek erakutsi dutenez, erreakzio kimikoak dira energia termikoa metatzeko modu eraginkorrenetako bat. Zentzu horretan, RedOx erreakzioek daukate etorkizun oparoena, energia-dentsitate altua kudeatzeko gai direlako, energiarik galtzen ez dutelako eta materialak (eta, hortaz, baita energia ere) garraiatzeko aukera dagoelako.

Hala, kobaltozko oxidoa da teknologia honetan gehien erabiltzen den materiala, oso temperatura altuko prozesuetan energia metatzeko erabil daiteke-eta.

Bada, honako berezitasun hau daukate kobaltozko eta nikelzko oxido mistoek: erreakzioaren temperatura doitu eta modulatu egin daiteke, kobaltozko oxidoaren sarean sartzen den nikel-kopuruaren arabera, eta, horrela, 700 °C-tik 850 °C-ra bitarteko temperaturen tartea estaltzen da.

Energia-iturri berrerabilgarriak

Ikerketa horri esker, iturri naturaletatik datorren energia termikoa metatu ahalko da; adibidez, eguzkitik datorrena edo askotariko prozesu kimiko bero-beroen hondar-beroa aprobetxatuta lortzen duguna. Horrela, energia-galera handiak saihestuko dira, eta, gainera, energia berreskuratu ez ezik, industria-jarduera horretatik kanpo edo prozesuaren barruan energia-iturria behar duen beste puntu batean berrerabili ere egin ahalko da.

Beraz, patentearen bidez garatu diren material berriak energia metatzeko erabili ahalko dira, hala CSP eguzki-zentraletan, nola tenperatura handiko prozesuak garatzen dituzten industria-jardueretan (esaterako, altzairu-fabrika batean).

CIC energiGUNEri buruz

Energia metatzeko eremuan, CIC energiGUNE da Europako ikerketa-zentro erreferentea. Zentroak, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako Sailak eremu horretan duen ekimen estrategikoa izaki, Arabako Foru Aldundiaren eta Energiaren Euskal Erakundearen babesa dauka, eta Euskadiko energiaren eta metaketaren sektoreko enpresa nagusiak dauzka patronatuan: Iberdrola, Cegasa Portable Energy, Sener, Siemens-Gamesa, Ormazabal, Idom, Solarpack, Mondragon eta Nortegas.

Halaber, Europaren hegoaldean energia metatzeko erreferentziazko laborategia da CIC energiGUNE, instalazio bakanak baitauzka: metaketa elektrikorako (automobilgintzarako bateria solidoak barne hartuta) prototipatua eta probak egiteko instalazioa eta metaketa termikorako azpiegitura (probak egiteko bi loturaduna). 500 argitalpen zientifiko baino gehiago egin ditu, eta 35 proiektu industrialetan baino gehiagotan hartzen du parte urtean.

Informazio gehiago

////////////////////////////////////

IK4-TEKNIKER | Itziar Cenoz

Itziar.cenoz@tekniker.es | Tel. 943 256 929

////////////////////////////////////

GUK | Ane Roteta

ane@guk.es | Tel. 690 212 067

////////////////////////////////////

MBN COMUNICACIÓN | Javier Palacios

javierpalacios@grupombn.com | Tel. 628 538 199